

SOZIJETATE ANONIMOAREN ORGANOAK - ADMINISTRATZAILEAK

- **Administratzaileen funtzioak**
 - Sozietatearen kudeaketa eta ordezkapena sozietatearen objektuaren barruan
 - Administrazioaren egitura (MEE 124 art.)
 - Administratzaile bakarra
 - Batzuk banatuki
 - Bi amankomunean
 - Administrazio Kontseilua (guxienez hiru partaide amankomunean)

- **Administratzaileen erregulazioa**
 - Izendapena estatutuetan (gutxienezko eta gehienezko zenbakiak) eta Batzak Nagusiak
 - Ez dute akziodunak izan behar eta izendapena onartu egin behar da
 - Administratzailea *pertsona juridikoa* denean, pertsona natural bat izendatu beharko da ordezkari
 - Ezintasunak administratzaile izateko: adin nagusiak ez direnak, konkurtsoagatik ez-gaituak, kondenatuak, bateraezintasunik dutenak
 - Karguaren iraupena estatutuetan jasoko da
 - 6 urte gehienez
 - bir hautatuak izan daitezke epe horretarako mugagabeki
 - Karguaren betebeharrak: enpresari arduratsua (diligentea), leiala, utzi eta gero sekretua eta konfidentziasuna eskatuko zaie, interes gatazkak dituztenean sozietatearekiko jakinarazi beharko ditu, ordezkapena objektu sozialaren barnean
 - Kargutik kentzea edo karguaren errebokazioa
 - Batzak Nagusiak edonoiz
 - Bidezko arrazoirik gabe
 - Ordainketa
 - Estatutuek jasoko dute nola, bestela doako lana izango da
 - Irabazietan parte hartzea da gehienetan eta forma desberdinetan egin daiteke: kopuru zehatza, % etekinetan, soldata moduan, sozietatearen akzioak.
 - Beti gorde behar da proportzioa sozietateak duen tamaina eta salmenta kopuruarekin.
 - Administratzaileei ordaindu baino lehen etekinekin sozietateak lehenengo legezko erreserbak eta estatutarioak bete behar ditu eta akziodunei aurretik dibidendutan %4a ordaindu behar zaie.

- Administratzaileen ordezkariak

- Administrazioaren egitura (MEE 124 art.)
 - Administratzaile bakarra
 - Batzuk banatuki
 - Bi amankomunean
 - Administrazio Kontseilua (guxienez hiru partaide amankomunean) eta ordezkariak kontseiluari dagokio
- Ordezkariak sozietatearen jardueraren barnean

- Administratzaileen erantzukizuna

- Administratzaileek zerbait egiten dutenean legea eta estatutuen kontra, edota karguaren ardurak bete egiten ez dituztenean.
- Egitatezko (de hecho) administratzaileek ere erantzukizuna izan dezakete
- Batzar Nagusiak onartu izana hainbat kudeaketak ez du balio administratzaileek izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.
- Erantzukizuna solidarioa da, administratzaileak demostratzen ez badu ahalegin guztiak egin zituela erabaki jakin bat ez hartzeko.
- Administratzaileen aurkako akzioen prozedura:
 - Zergatik? (erantzukizunaren balizkoak): legea eta estatutuen kontrako ekintzak burutu direlako eta horregatik kalteak sortu dizkie sozietateari, akziodunei eta hartzekodunei.
 - Administratzaileek burututako egintza eta sortutako kalteen artean erlazio zuzena egongo da.
 - Akzioak:
 - Sozietatea akzioa (sozietatea zuzenean atera da kaltetuta)
 - Norbanako akzioa (akziodunak eta hartzekodunak bere ondarean kaltetuta atera direlako)
 - Legitimatuz aktiboki sozietate akzioa tartekatzeko: lehengo sozietatea bera, bigarrenik akzioduna (sozietateak tartekatzen ez badu) eta, azkenik, hartzekoduna (bere kredituak bermatuta ez badaude)
 - Legitimatuz pasiboki sozietate akzioa tartekatzeko (akzioa noren aurka): administratzaileen aurka
 - Legitimatuz aktiboki norbanako akzioa tartekatzeko: akziodunak eta hartzekodunak.
 - Legitimatuz pasiboki norbanako akzioa tartekatzeko: administratzaileen aurka
 - Epea 4 urte bi akzioetarako

- Merkataritzako auzitegia
- Frogak, estatutuak, urteko kontuak, eta abar.

- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

- Kontzeptua, gutxienez hiru pertsona administrazio bateratua eramateko
- Kontseiluaren izendapena Batzar Nagusiak egingo du baina estatutuek gutxienerako eta gehiengo kopurua aurreikus dezakete, kopuru zehatza BNri dagokio. Arau orokorra izendapenerako da Batzar Nagusiaren gehiengo estatutuen arabera, bestela sinplea.
- Bi berezitasun izendapenerako
 - Kooptazioa. Kontseiluak berak aukeratuko du kontseilaria, baja bat ematen denean akziodunen artean BN elkartzen denean.
 - Hainbanakako sistema (proportzionala) = Kapitala nominala/Kontseilari kopurua = kapitalaren % bat aterako da eta horiek izango dute kontseilari izendatzeko eskubidea. Adibidez, Cs =100.000 akzio/20 kontseilari → 5.000 akzio bakoitzeko kontseilari bat izendatuko du.
- Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua, bere barnea araudiaren arabera.
 - Deialdia Kontseiluko presidentek egingo du
 - Asistentzia, kontseilari kopuruaren erdia eskatuko da gutxienez
 - Akordioak gehiengo absolutuaz hartuko dira
 - Kontseilari bakoitzak boto bat
 - Akordioak akta liburuan jasoko dira
 - Akordioak aurkaratu daitezke, batzar nagusiaren prozeduraren arabera (30 egunetan).
- Administrazio Kontseiluak hainbat funtzio eskualda ditzake:
 - Batzorde egikaritzaila eta eskuordetutako kontseilariak (delegatuak), arrazoia, elkartzea zaila denean.
 - Ahalordetza eskuordetutako kontseilariak izango du eta exekutiboa bada, kontratu bat sinatuko du funtzio exekutibo horiek egiteagatik. Izendatzeko kontseilarien 2/3k aldeko botoa emango dute.
 - Hala ere Kontseiluak hainbat ahalmen ezin ditu eskualdatu: urteko kontuak aurkeztea, Kontseiluaren antolaketa.

- Kontu Ikuskariak (auditoreak)

- 22/2015 Kontu Ikuskarien Legea, uztailaren 20koa
- Izendapena
- Baldintzak
- Eraketa momentuan izendapena
- Batzar Nagusiaren izendapena
- Merkataritzako Erregistratzailearen izendapena
- Ohiko jarduera urteko kontuak ikuskatzea kontabilitate araudiaren arabera eta txostena egingo dute (aldekoa, aurkakoa, salbuespenekin edo ez dute egingo).